

Bertsolaritza arloan Galdakaoko zar-barri batzuk. Jose Mariano Barrenetxea.  
Eustakio tarrak.

Galdakao herrian

Orain berrogei urte inguru Bengoetxe auzoko Tomas Garai jaunak Eustakio "Eulea" bertsolariaren bertso atal batzuk konta eustazan, baita Urtebieta baserriko "Txala" renak ere bai. Ogeitabost urte baña geiago ere badira, Felix Zugazagak bere anai Iñazio ta Balendiñeri ere neronen aurrean auxe esan eutsela: Aititen bertso papelak Marianori emiozak. Baña neure aldetik ere bai geur bierko ta bier etziko, ta azken baten danak joan yataz. Felixek Mungi herriko kamiñoaren bertso batzuk esan eustazan baña bertso papelak egozala ta nik ez ninduzen idatzi, ta olan gaurartiño. Mungi herriko Udaletzean ere galdetu nindun, ze, kamiñoaren bertsoak Mungiko Udalaren aginduz egin ziran kamiñoa egin zan denporan, baña gerra denporan Franco-ren abioiak Udaletxea ta baserriek be desegindu ta erre egin ebiezan euren bonba zoritxarrekoeka. Orainarte beintzat kamiñoa zala ta Udalak ez dau Eustakioren bertso horreik aurkitu.

makina idatzi

Jesus Maria, Etxebarria Gatika herriko abade jaunak Laukiz herrian Eustakio "Eulearen" bertso batzuk gente askok eukezela ta beste askok buruz ere beste bertso batzuk jakin, ta batu egin ebazan "Zortzi nobio ta zortzi amodio"koak da Balendin Zugazagaren alaba Eduñeri orain bost edo sei urte inguru dala emon eutsozan, eta Edurnek neroneri. Amoriza jaujari ere "Bizkaiko Bertsogintza" bigarren liburureko Etxebarria abadeak Eustakioren barriak emon eutzezan.

zortzi nobioen bertsoak

Etxebarria abadeagaz nik berba egin ondoren ZER aldizkarirako nai nebazala ta baietza emon eustan, berak batuko lana da ta.

Orain Eustakio ta beren famili arteko barri batzuk esan, eta ondoren "Ogeigarren illabeteko Txala", ta Galdakao bizi izan diran bertsolarien ixentaziño bategaz lantxo au amaituko dot. Baña Eustakioren barrien artean karta polit bat ere bada emen ta irakurleak asmatu bearko dau Zemendiaren 26en, 1920garren urtian bertsoan idatziko gauzatan Basili daraskoaren esakune ortan, gazte denporako maitasuna "fraka zar pobrearentzat" ere baegoela, naita Amerika urriñean egon, biotz barruan ere baegoala erakutsen ematen dau ja.

8-8 | 16-1 |  
Año 1911-1994